

UNT XI TXIKIA

7. KAPITULUA:
NIK ZUK BAINO GEHIAGO DUT.

8. KAPITULUA:
URTEBETETZEKO JAIAN.

7. KAPITULUA: NIK ZUK BAINO GEHIAGO DUT.

8. KAPITULUA: URTEBETETZEKO JAIAN.

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena 2 or.

5. Kapituluak:

- Helburuak 3 or.
- Ekintzak 4 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 8 or.

6. Kapituluak:

- Helburuak 16 or.
- Ekintzak 17 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 20 or.

Bibliografia 26 or.
Egileak 27 or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA.

BIDEOKASETE HAU HAUREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOKO 2. ETA 3. IKASMAILETAKO HAURREI ZUZENDUA DA.

Gure lanaren ardatz nagusia da material lagungarria eskaintzea komunikazioaren eremuari dagozkion helburuak lantzeko. Hauek dira bereziki landu nahi ditugun helburuak:

e) Inguru hurbila jakin-minezko eta ardurazko jarreraz begietsiz eta aztertuz, inguru hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietate esanguratsuenak identifikatzea, eta haien artean sortzen diren erlazioetariko batzuei antzematen laguntzea.

f) Haurren inguruko zenbait adierazpen kulturazko ezagutzuz, eta haiekiko errespetua, interesa eta parte-hartzezko jarrerak garatuz, inguru hurbileko beste adierazpen kulturazko batzuekiko interesa eta errespetua lantzen hastea.

g) Haurrek bizi, ezagutu edo irudikatu duten errealitatearen zenbait alderdi antzeztea eta gogoratzea, eta jolasek nahiz antzezteko eta adierazteko beste forma batzuek eskaintzen dituzten aukera sinbolikoen bitartez aditzera ematea.

h) Hitzeko mintzaira komunikazioko egoera ohikoetara egokituz erabiltzea: besteek diotena ulertzeko eta ulertua izateko; ideiak, sentimenduak, esperientziak eta desioak adierazteko; esanguren eraikuntzan aurrera egiteko; norberaren jokabidea arautzeko eta besteenean eragina izateko.

i) Haurrek, eskura dituzten baliabideen bitartez, adierazteko ahalmenak aberastea eta zabaltzea; haien adinari dagozkion adierazpen artistikoak ezagutzen eta haietaz jabetzen laguntzea.

1. KAPITULUA: Nik zuk baino gehiago dut.

HELBURUAK:

- Gozatzea.
- Ahozko testuak ulertzea.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea ideiak azaltzeko.
- Hotsak: hotsen ezaugarriak bereiztea: luze / labur, apal / ozen.
- Irudikapen ez-konbentzionala erabiltzea adierazpide gisa.
- Zenbakia: Berdin / Ezberdin. Multzo bat bitan banatzeko estrategiak sortzea.

EDUKIAK

JARRERAZKOAK:

- Hots batzuk gogoko izatea.
- Hotsekin esperimendatzeko gogoia eta jakin-mina izatea.

- Ahozko mintzaira tresnatzat hartzea eta balioestea norberaren ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko.
- Kulturako tradizioaren testuei dagokienez, arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas-dinamikak berak sortzen dituen antzezpenetan parte hartzeko ekimena, ziurtasuna eta konfiantza izatea.

KONTZEPTUAK:

- Hotsa: luze / labur, apal / ozen.
- Entzutezko oroimena.
- Zerbait baino gehiago / gutxiago.
- Ahozko mintzaira, komunikatzeko tresnatzat hartua.
- Kulturako tradizioaren ahozko testuak.
- Kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena.

PROZEDURAZKOAK:

- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak ulertzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak adituz.
- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak egitea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiliz.
- Kulturako tradizioako abesti batzuk ezagutzea, ulertzea, eta intonazio eta doinu egokiz kantatzea.
- Hotsak ezaugarri hauen arrabera sailkatzea: luze / labur, apal / ozen.
- Hizkuntza idatzi ez-konbentzionala hainbat asmorekin erabiltzea: Plastikazko lanez baliatzea gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko.
- Mugimenduaren aukerak erabiltzea besteekin elkarri eragiteko bide gisa.
- Egoerak identifikatzerakoan eta imitatzeko jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

HIGIMENA eta HIZKUNTZA

Eduki guztietan, lehendabizi, gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.

- Gelako hurrekin bi talde egin, baloi-errean edo sokatiran jolasteko aitzakiaz. Hurrei galdetu nola egin bi talde
- Bi taldetan banatuta daudela, talde bakoitzeko hurrek elkarri eskua emanda, talde bati besoak luzatzeko eskatuko diogu, kate luzeagoa osatzeko. Orduan, galdetu ea taldeetan haur-kopuru bera dagoen.
- Irakasleak kolpe luzea joko du, eta haren araberrako urratsak egingo dituzte hurrek.

HIZKUNTZA

- Kapitulua ulertzea: umeei kontrazi, irakasleak lagunduta.
- Egoeraren transposizioa: imitazioa egin. Lehenago, pertsonaiak banatu: zer behar den, non kokatuko diren:
 1. INURRIA.- Hau zuretzat, hau niretzat, zuretzat, niretzat...
 1. INURRIA.- Orain, jan dezagun!
 2. INURRIA.- Niri gutxiago eman didazu, ez nago ados! Hori azala zurea!
 1. INURRIA.- (Ez du ulertzen.) Ezin daiteke izan.
 2. INURRIA.- (Konpondu nahian.) Nik berehala konponduko dut.

1. INURRIA.- Baina zureak hurbilago daude! Nireak, aldiz, banatuago! Begira!

1. INURRIA.- Nork du gehiago, e? Nork du gehiago, nik ala zuk?

2. INURRIA.- Ui, gaizki egin dut, oraintxe konponduko dut!

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA

·Materiala aurrean dutela, matematikako buruketaz eztabaidatu:

Haurrak binaka kokatu, eta objektu-multzo bat eman, bien artean banatzeko.

·Kodifikatzea: eskatu ezen marrazkien bidez konta dezatela inurriei gertatutakoa.

MUSIKA ETA HIZKUNTZA

·Begiak itxita, ikasgelatik kanpo entzuten diren hotsetan arreta ipini 15 segundoz, geroago imitatzeko eta sailkatzeko: luzeak, laburrak, apalak, ozenak.

·HOTSAK MARRAZTU

Ondoko hots hauek entzun ondoren, horien irudikapen grafikoa egin. (Ez-konbentzionala).

Oso garrantzitsua da irudikapen ezberdinak erakustea eta talde txikian iruzkintzea.

Kamioia martxan

Patatak frijitzen

Bihotz-taupada

Klariona arbelean

Txaloa

Txirriinduren txirrina

Txistuaren nota batzuk.

Xilofonoaren nota batzuk.

PLASTIKA ETA HIZKUNTZA

Basoko elementuez “collage” bat egin.

• **Kontakizunaren haria, blokeka eta denborak zehaztuz**

7. KAPITULUA: NIK ZUK BAINO GEHIAGO DUT.

HODEIA.- Atzo Haizeak gogor jo zuen, eta basoko gauza guztiak nahastu egin ziren.

HODEIA offean.- (Aurreko kapituluetakako irudiak.) Beltxiki eta Kattalin zulo batean sartu zituen, eta Txikiren etxezuloa desordenatu egin zuen; Inurriei ere desegin zien etxea.

ILARGIA.- Eta nola atera ziren zulotik Kattalin eta Beltxiki?

HODEIA offean.- (Aurreko kapituluetakako irudiak.) Inurrien eta Txikiren laguntzari esker, Zuhaitza jaso, eta gure adiskideak atera egin zituzten.

ILARGIA.- Jakin daiteke non den Haizea?

HODEIA.- Gaur ez dabil; oraingoz ez behintzat.

HODEIA.- (Zuhaitzaren ondoan.) Gure adiskideak Zuhaitzari hosto asko kendu zizkion.

ILARGIA.- Zer gertatu zaizu, Zuhaitz? Adarretan ez duzu historik.

ZUHAITZA.- Udazkeneko Haizeak kendu zizkidan. Begira, beste Zuhaitzek ere nik adina hosto dituzte.

HODEIA.- Pinuak ez, pinuak zuk baino gehiago ditu.

ZUHAITZA.- Egia da, Zuhaitz batzuei ez dizkie kendu, eta nik baino hosto gehiago dituzte.

ZUHAITZA offean.- Pinuak, adibidez, asko ditu, eta nik, berriz, gutxi.

ZUHAITZA.- Ez nago kezkatuta, berriro haziko zaizkit eta.

HODEIA.- Ez zara Haizearekin haserretu?

ZUHAITZA.- Ez, hark bere lana besterik ez du egin.

HODEIA.- Egia, nik ere gauzak bustitzen ditut, baina beharrezkoa delako.

ZUHAITZA.- Ilargi, zu Hodeia baino astunagoa zara. Kontuz nire adarrekin!

(Erori egiten da, eta adar bat puskatzen da.)

(Adarra apurtzearen hotsa.)

(Ilargia oihuka.)

ILARGIA.- (Ilargia lurrean Zuhaitzari kexaka.) Zergatik ez didazu lehenago esan? Hau kolpea!

ZUHAITZA.- Esan dizut, baina ez didazu kasurik egin!

ILARGIA.- Esan didazu, baina berandu!

ZUHAITZA.- Ez da nire errua izan. Antza denez, adar hori ihartuta zegoen, eta zure pisuarekin apurtu egin da.

ILARGIA.- Eta Hodeia, zergatik ez da erori?

ZUHAITZA.- Zuk baino pisu gutxiago duelako!

00:04

HODEIA.- Ni ez naiz zu bezain astuna!

ZUHAITZA.- (Zuhaitzak Ilargiari, laztanduz.) Hobe izango duzu nire ondoan geratu, bestela, adarrrik gabe utziko nauzu.

ILARGIA.- (Kexuka.) Zergatik? Nik zure adarretan egon nahi dut. Ez al diozu Hodeiari utzi, bada?

HODEIA.- A!, baina zu ni baino astunagoa zara!

ZUHAITZA.- Lasai! Ni orain ez nago oso indartsu. Laster negua etorriko da, eta horregatik makalago nago; baina, udaberria datorrenean, indartu egingo naiz, eta orduan nire adarretan hartuko zaitut.

ILARGIA.- Nik oraintxe nahi dut! (Negarrez.)

HODEIA.- Ez izan gogaikarria. Ezin duela esan dizu; beraz, isil zaitez!

ILARGIA.- Dena adar makal honengatik! (Adarra eskuetan duela.)

ILARGIA.- Hara! Barrutik hutsa dago!

ILARGIA.- Hodeia! Zulotik ikusten zaitut. Kaixo!

ILARGIA.- (Hodeiari.) Adarra hutsa dago, eta jolasteko balio du!

(Txistuaren hotsa. Aldi berean, ikur grafikoak txistutik sortzen dira.)

ILARGIA.- Hara! Eta hots hori?

ZUHAITZA.- Gure adiskideak, Haizeak, zure adaxkan txistu egin du. Zuk ere egiten ahal duzu, airea hartuz eta zulotik botaz.

HODEIA.- Nik ere egin nahi dut!

ILARGIA.- Izorra zaitetz, ez duzu eta! Gainera, ez dizut utziko. Et, et, (Isekaz.) Zuk ez duzu!

HODEIA.- Nik ere nahi dut!

ZUHAITZA.- Zuk hotsak egin ditzakezu nire adarretan jauzi eginez.

ILARGIA.- Nik hots luzea egingo dut, eta zuk ez hain luzea, ados?

ILARGIA.- Orain, nik ozen-ozen, eta zuk, berriz, apal-apal.

HODEIA eta ILARGIA.- (Aho batez.) Orain...

HODEIA.- Utzi niri esaten, beti ez duzu zuk aginduko. Ez da hala, Zuhaitz?

ZUHAITZA.- Zerok konpondu behar duzue: edo txandaka, edo beste modu batean, baina zerok konpondu!

00:07

HODEIA.- Orain niri dagokit esatea!

ILARGIA.- Ez oihukatu, ez naiz eta gorra!

HODEIA.- (Gogor.) Nik ozen-ozen egingo dut, eta zuk, berriz, apal-apal.

(Hala egiten du.)

HODEIA.- Orain, abesti bat egingo dugu.

ZUHAITZA.- Eta, gaur ez dugu ipuina kontatuko?

ILARGIA eta HODEIA.- Abestiaren ondoren.

KARATULA.- Bazen behin untxi txiki bat. Amatxorekin eta aitatxorekin bizi zen. Haren etxea lur azpian zegoen, eta, han, haien ohe lastozkoak.

00:09

ZUHAITZA offean.- Inurriak beren inurritegia konpontzen ari dira. Dena hankaz gora dago: lurra, hostoak... janaria nahastuta dago.

Lehengo egun batean, zuek dakizuenetz, Zuhaitz bat erori zen Haizearen eraginez, eta dena nahastu egin zen.

ZUHAITZA.- Horrelako gauzak gertatzen dira. Ea nolako eguna egiten digun gaur! Basoko animaliak esnatzen hasiak dira, haien pausoak entzuten ditut eta.

TXIKI.- (Alai.) Haizea baretu du! Atzoko haizetea egundokoa izan zen. Beltzikiren bila joango naiz.

BELTXIKI.- Kattalinen etxera noa, ea ondo dagoen ziurtatzera.

ZUHAITZA.- Beltxiki handik dator.

BELTXIKI.- Kaixo, adiskideok! Zertan ari zarete?

1. INURRIA.- Inurritegia konpontzen, dena nahastuta dago eta.

BELTXIKI.- Lagunduko dizuet. Zer egin dezaket?

2. INURRIA.- Hostoak kendu. Nik, bitartean, janaria bilduko dut, eta beste honek lurra ondo ipiniko du.

TXIKI.- Kattalin!

(Kattalineek burua ateratzen du.)

KATTALIN.- Zer nahi duzu, Txiki?

TXIKI.- Nola zauden jakin nahi dut.

KATTALIN.- Primeran nago, lo asko egin dut eta.

KATTALINEN AMA.- Egun on, Txiki!

TXIKI.- Egun on! Kattalini utziko diozu jolastera etortzen?

KATTALINEN AMA.- Atertu du? Ala atzoko haizeteak jarraitzen du oraindik?

KATTALIN.- Ama, entzun. Ez da Haizearen hotsa entzuten!

TXIKI.- Egia da, Haizearen hotsa ez da entzuten.

KATTALIN.- Goazen, bada!

BELTXIKI.- Ederki!

2. INURRIA.- Gero hamaiketako egingo dugu. Beltxiki, guk gonbidatzen zaitugu.

1. INURRIA.- Horrela lehenago bukatuko dugu. Zeinen ongi!

1. INURRIA.- Beltxiki, tori, jan ezazu!

BELTXIKI.- Ez dut nahi, ez zait gustatzen. Hori ez da untxien janaria. Jan ezazue zuek; nik zer edo zer bilatuko dut.

1. INURRIA.- Hau zuretzat, hau niretzat, zuretzat, niretzat...

1. INURRIA.- Orain, jan dezagun!

2. INURRIA.- Niri gutxiago eman didazu, ez nago ados! Hori azala zurea!
00:12

1. INURRIA.- (Ez du ulertzen.) Ezin daiteke izan.

2. INURRIA.- (Konpondu nahian.) Nik berehala konponduko dut.

1. INURRIA.- Baina zureak hurbilago daude! Nireak, berriz, banatuago! Begira!

1. INURRIA.- Nork du gehiago, e? Nork du gehiago, nik ala zuk?

2. INURRIA.- Ui, gaizki egin dut, oraintxe konponduko dut!

TXIKI.- Beltxiki!

KATTALIN.- Beltxiki!

KATTALIN.- Nora joan ote da?

TXIKI.- Auskalo! Atzo ez zuen ezer esan.

2. INURRIA.- Orain, jan ditzagun! Kopuru bera dugu, eta beste hauek geroko gordeko ditugu.

1. INURRIA.- (Haizea etortzen da, eta dena eramaten du, janaria nahastuz.)

1. INURRIA.- Haizea berriro! Gorde gaitezen!

2. INURRIA.- (Inurritegian sartzen da.) Haizeak jotzen duen bitartean ezingo dugu jan.

Hau gosea!

(BELTXIKI.- O! Haizeak dena nahastu du berriro, eta Inurri gaixoek ezin izan dute jan.

Jaso egingo dut haien janaria, eta eramanez egingo diet.

BELTXIKI.- Non ote da haien inurritegiako sarbidea? Hemen zen, bada!

BELTXIKI.- Bai harrigarria! (Txilibitua jotzen du.) Soinua egiten du! Beltxikiri erakusten diodanean, liluratua geratuko da, eta eskatu egingo dit.

2. INURRIA.- Zerena ote da soinu hori? Txoria dirudi, baina nik ez dut inoiz horrelakorik entzun.
00:14

1. INURRIA.- Begira dezagun! Ea nolako txoria den!

(Zalantzan.) Ez dakit utziko diodan. (Pentsakor.) Ezustean harrapatuko dut, eta adarra joko diot.

2. INURRIA.- A! Zu zara! Guk txoria zela uste genuen!

BELTXIKI.- Ia-ia! Txilibitua ondo jotzen dudanean, txoriek bezain ondo egingo dut.

BELTXIKI.- Ikasi egingo dut.

BELTXIKI.- Orain, luze-luze joko dut.

2. INURRIA.- ematen du.

BELTXIKI.- Orain, labur-labur.

1. INURRIA.- ematen du.

BELTXIKI.- Orain, luze eta apal.

1. INURRIA.- Triste edo nekatuta zaudela dirudizu.

BELTXIKI.- Orain, labur eta apal.

2. INURRIA.- Orain baietz iruditu nekatuta zaudela!

1. INURRIA.- Edo oin-puntetan zabilzala!

BELTXIKI.- Orain, luze eta ozen.

2. INURRIA.- Kontuz! Soinu hori barru-barruraino sartu zaigu.

TXIKI.- Zer izan da hori?

KATTALIN.- Auskalo!

BELTXIKI.- Orain, labur eta ozen.

8. KAPITULUA: URTEBETETZEKO JAIAN

HELBURUAK:

- Gozatzea.
- Ahozko testuak ulertzea.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea ideiak azaltzeko.
- Hotsak: Tinbrea bereiztea.
- Irudikapen ez-konbentzionala erabiltzea adierazpide gisa.
- Zenbakia: Berdin / Ezberdin. Multzo bat taldekideen artean banatzeko estrategiak sortzea.

EDUKIAK

JARRERAZKOAK:

- Hotsekin esperimentatzeko gogoia eta jakin-mina izatea.
- Ahozko mintzaira tresnatzat hartzea eta balioestea norberaren ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko.
- Kulturako tradizioaren testuei dagokienez, arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas-dinamikak berak sortzen dituen antzezpenetan parte hartzeko ekimena, ziurtasuna eta konfiantza izatea.

KONTZEPTUAK:

- Soinua: Abeslarien koordinazioa.
- Zerbait baino gehiago / gutxiago, berdin / ezberdin. hainbat.
- Ahozko mintzaira, komunikatzeko tresnatzat hartua.
- Kulturako tradizioaren ahazko testuak.
- Kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena.

PROZEDURAZKOAK:

- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak ulertzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak adituz.
- Ipuinen eta esperientzien gaineko deskribapenak eta kontaktak egitea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiliz.
- Kulturako tradizioako abesti batzuk ezagutzeko, ulertzeko, eta intonazio eta doinu egokiz kantatzea.
- Taldea abestea, koordinatzen saiatuz.
- Hizkuntza idatzi ez-konbentzionala hainbat asmorekin erabiltzea: Plastikazko lanez baliatzea gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko.
- Mugimenduaren aukerak erabiltzea besteekin elkarri eragiteko bide gisa.
- Egoerak identifikatzerakoan eta imitatzeko jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

HIGIMENA eta HIZKUNTZA

Eduki guztietan, lehendabizi, gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.

·Haurrak taldeka banatu (Taldekideen kopurua: 4 urtekoekin, 3, 4 edo 5; 5 urtekoekin: 5, 6, ...9)

Taldeetako arduradunek haurrei esan soka bana, uztai bana eta makila bana emateko. Baldintza: ahalik eta denbora gutxien erabiltzea. Galdetu nola egingo duten eta nola egin duten.

Banatu ondoren, jolasten utzi.

·Makilekin perkusioa egin taldeka lurraren gainean, hasieran nork bere aldetik egingo du, inolako koordinaziorik gabe. Gehienetan, koordinazioa berez sortuko da; bestela, proposatu.

HIZKUNTZA

·Kapitulua ulertzea: umeei kontrazi, irakasleak lagunduta

·Egoeraren transposizioa: imitazioa egin. Lehenago, pertsonaiak banatu: zer behar den, non kokatuko diren.

KATTALIN.- Ez izan gezurtia! Zuk jan egin nahi nauzu! Ondo baino hobeto dakit!

AZERIA.- Ezetz, bada!

(Une honetan, zaku batek estali egiten du Azeria, eta oihuka hasten da.)

AZERIA.- E! Zer da hau? O! Ai! Askatu! Ez! Ez!

(Txikiren, Kattalinen eta denen artean lotu ondoren, haren inguruan geratzen dira.)

TXIKI.- Hori ezustekoa, e?

BELTXIKI.- Zuk gu harrapatu beharrean, guk harrapatu zaitugu!

KATTALIN.- Zer egingo dugu?

AZERIA.- (Offean.) Askatu, arren! Ez dut berriro egingo!

BELTXIKI.- Egia da hori?

AZERIA.- (Offean.) Bai, zin egiten dut. Zintzoa izango naiz, ez zaituztet harrapatuko!

IGELA.- Baldintza horrekin askatuko zaitugu: ezingo dituzu gure adiskideak harrapatu.

AZERIA.- (Offean.) Ados, zin degizuet!

(Askatu, eta denak Azeriari begira.)

BELTXIKI.- Eta gogora ezazu: zintzoa izango zara gurekin!

·Abestiak buruz ikasi: “Haurtxo polita” eta “Zorionak zuri”.

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA

·Materiala aurrean dutela, matematikako buruketaz eztabaidatu:

Haurrak taldeka kokatu, eta, objektu-multzo batzuk denen artean banatu behar direnean, taldeko arduradunei galdetu ea zenbat behar dituzten. (Piruletak, xingomak eta erregalizak, edo orriak eta arkatzak). Lehenengo multzoa banatu ondoren, berriro galdetu ea zenbat behar dituzten taldekideei emateko, ea berriro zenbatu behar duten eta zergatik.

(Taldekideen kopurua: 4 urtekoekin, 3, 4 edo 5; 5 urtekoekin: 5, 6, ...9)

·Kodifikatzea: eskatu ezen marrazkien bidez konta dezatela Txikiren lagunei gertatutakoa.

MUSIKA ETA HIZKUNTZA:

·Haurrei tinbre ezberdineko musika-tresnak banatu. Denek batera joko dituzte: doinua, txandaka, haur batek proposatuko du, eta besteek imitatu egingo dute.

·“Haurtxo polita” taldean abestu.

·Abesbatza baten grabazioa taldean entzun.

• **Kontakizunaren haria, blokeka eta denborak zehaztuz**

8. KAPITULUA: URTEBETETZEKO JAIAN

HODEIA.- Tori, jo ezazu berriro! Askok gustatzen zait! Egin soinua luze-luzea!
(Txistuaren soinua.)

HODEIA.- Orain, labur-laburra.
(Txistuaren soinua.)

HODEIA.- Orain, labur-laburra, baina ozena.
(Txistuaren soinua.)

HODEIA.- Orain, labur-laburra, baina apala.
(Txistuaren soinua.)

00:21

HAIZEA.- Orain, nik nahi dudana joko dut. Soinua polit bat ezagutzen dut. Entzun ezazu!
(Soinua: Txirularena edo txistuarena.)

HODEIA.- Agur, Eguzki jauna, bihar arte! Ondo lo egin!

HODEIA.- (Haizeari.) Zergatik ez diozu lo egiteko abesti bat jotzen?

HAIZEA.- (Offean.) Ederki! ("Haurtxo polita".)

EGUZKIA.- Aizue! Ni ez naiz lotara joaten! Ez dut lorik egiten, egun guztia lanean ematen dut.

HODEIA.- Lo-kuluxkaren bat egingo duzu! Ala ez dituzu begiak inoiz ixten?

EGUZKIA.- Ez, niri asko gustatzen zait begiratzea, leku guztietan gauza harrigarriak gertatzen dira eta.

HODEIA.- Eta gaur, zer ikusi duzu?

EGUZKIA.- Kattalin, Txiki, Igela, Inurriak... guztiak hitz egiten oso lanpetuak ibili dira. Baina, zuk ez duzu ezer ikusi? Zu ere goian zaude, ni bezala.

HODEIA.- Oraintxe bertan heldu naiz eta, ez dut ezer ikusi.

Gainera, Haizearekin jolasean ibili naiz.

IZARRA.- (Offean.) Honela jarraituz gero, ni ez naiz agertuko! Eguzkia ez da joango, ez da?

EGUZKIA.- Lasai, Izartxo, banoa, banoa! Gabon!

(Eguzkia desagertzen den heinean, Izarra agertzen da.)

IZARRA.- Gabon, Eguzki jauna! (Besteei.) Bazen garaia! Hura desagertu arte ezin izan naiz agertu. Estali egiten nau!

IZARRA.- (Haizeari.) Zeinen ongi jo duzun! Jarraitu!

HAIZEA.- Nahi baduzue, zuek ere abes dezakezue.

(Haizea jotzen hasi da, eta Hodeia eta Izarra ere abesten hasten dira. Abestia: "Haurtxo polita".)

HODEIA.- (Izarrari.) Bat, bi eta hiru! (Abestia.)

(Ez doaz batera.)

HAIZEA.- Ez! Ez! Ez! Biok batera joan behar duzue. Biok batera! Has gaitezen berriro!

HODEIA.- (Izarrari.) Bat, bi eta hiru! (Abestia.)

(Bukatu eta gero.)

IZARRA.- Hodei, zergatik ez diogu Hontzari abesten?

HODEIA.- Tira, baina Haizeak laguntzen badigu. Hark txistua joko du.

HAIZEA.- (Offean.) Ezin dut, joan egin behar dut.

IZARRA.- Baina guk musikarekin abestu nahi dugu!

HAIZEA.- (Offean.) Badira beste musika-tresna batzuk. Zer edo zer topatuko duzue!

HODEIA.- Nork joko du?

HAIZEA.- (Offean.) Zuek! Aguuuuuur!

IZARRA.- Goazen, bada; behera jaitsiko gara!

HODEIA.- Ni ez naiz ausartzen. Ez dugu ongi egingo.

(Izarra Hodeiaren gainean jesartzen da.)

IZARRA.- Behera goaz!

(Zuhaitzean Begi-handi lotan dago; haiek hurbildu, eta, makilatxo batzuk hartu ondoren, jotzen hasten da.)

(Abestia, klabeek lagunduta. Begi-handi esnatu egiten da.)

HONTZA.- Gabon, adiskideok! Eskerrik asko abestiarengatik.

IZARRA.- Gaua da, Hontza jauna! Esnatzeko ordua zuretzat.

HONTZA.- Arrazoi duzue, baina gaur lo gutxi egin dut, basoan zarata izugarria izan da eta!

HODEIA.- Zer gertatu da, bada?

HONTZA.- (Erdi lo.) Gure adiskideek sorpresa bat prestatu diotela Beltzikiri. Dena ondo atera da, haserretu diren arte, noski.

IZARRA.- Eta zergatik haserretu dira?

HONTZA.- Oraintxe bertan kontaktuko dizuet; baina, lehenago, haurrak agurtu behar ditut. Kaixo, neska-mutilok! Hemen nauzue berriro! Gaur itxura txarra dut, lo gutxi egin dut eta!

00:25

HONTZA.- Entzun dezagun gure adiskideen istoriotxoak.

KARATULA.- Bazen behin untxi txiki bat. Amatzorekin eta aitatzorekin bizi zen. Haren etxea lur azpian zegoen, eta, han, haien ohe lastozkoak.

(Hontza lo egiten saiatzen ari da, baina zaratak une oro esnarazten du. Kattalin, Txiki, Igela eta Inurriak aurrera eta atzera dabilta trasteak eramaten, Hontza dagoen Zuhaitzaren azpian utziz.)

(Azeriak entzuten du, eta zelatan jartzen da.)

AZERIA.- Gaur ere elkarrekin daude. Zer ari ote dira prestatzen?

TXIKI.- (1. Inurriari.) Katilu hau ekarri dut. Ea beste bat topatzen dudan!

1. INURRIA.- Nik hur hau ekarri dut.

AZERIA.- Askaria edo jairen bat dutela esango nuke nik. Beraz, denok jango dugu, baina txandaka: haiek lehenengo, eta gero nik!

(Gehiagoren bila doaz. Kattalinekin eta Igelarekin gurutzatzen dira.)

KATTALIN.- Amak bi katilu hauek utzi dizkit (Lurrean bota, eta zarata egiten du.) Gero, eraman egin behar dizkiot.

IGELA.- Nik, ontzirik ez dudanez gero, hosto hauek ekarri ditut. Janaria gainean ipin daiteke. (Txiki eta 1. Inurria heltzen dira beste ontzietekin, eta lurrera botatzen dituzte, zarata handiagoa eginez.)

HONTZA.- (Esnatu egiten da.) Horrela ezin da lorik egin! Non, eta nire Zuhaitzaren azpian elkartu behar zuten. Hau zorte txarra!

(Lo egiten saiatzen da.)

IGELA.- Orain, janari bila joan behar dugu.

KATTALIN.- Fruituak eta sustraiak ekarriko ditugu: masustak...

TXIKI.- Hurrak, hirustak... eta abar.

00:28

AZERIA.- Hori, hori, zuek janari bila. Ni hemen geratuko naiz lo-kuluxka egiten, zuek etorri arte. (Joan egiten dira, zalapartaka eta jauzika.) Orain bai! Orain bai jango ditudala! Eta, gainera, zenbat! Hau zortea nirea!

(1. Inurria, Kattalin eta Txiki fruituak biltzen. Igela ere han da, baina ez du ezer biltzen.)

KATTALIN.- Ez hondatzeko, zorro batean eramango ditugu; bestela, zapuztu egingo dira.

TXIKI.- Begira zenbat hartu ditudan!

IGELA.- Niri ez zaizkit fruituak gustatzen. Nik nahiago dut beste zerbait.

TXIKI.- Zer jaten duzu?

IGELA.- Euliak, eltxoak, matxinsaltoak eta horrelakoak.

KATTALIN.- Bada, ez dugu bat ere harrapatu.

IGELA.- Nik harrapatuko ditut gero. Orain, gure abestia prestatu behar dugu, hemen.

Horrela, Beltxikik ez du jakingo.

1. INURRIA.- (Zuzendariarena eginez.) Denok batera, prest?

(Abestia: Zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak Beltxiki, zorionak beti.)

(Gaizki abesten dute, eta Inurriak zuzendu egiten die.)

1. INURRIA.- Denok batera! Ez zaitez aurrera, Txiki!

Berriro egingo dugu.

(Abestia.)

1. INURRIA.- Ongi dago, baina, Txiki, ez hain ozen. Ahots apalagoz abestu behar duzu.

TXIKI.- Beti niri! Nik hain gaizki abesten badut, isildu egingo naiz! Zuek bakarrik abestu!

Banoa askaria prestatzera! Agur!

(Besteak aho zabalik geratzen dira, eta Txiki joan egiten da.)

(Txiki bidetik haserre, bere buruarekin hitz eginez.)

TXIKI.- Gaizki abesten badut, ez dut egingo, eta kito!

Inurria tentela da, ez naiz harekin jolastuko!

(Zuhaitzaren azpian, Txiki ontziak ipintzen.)

TXIKI.- Hau Beltxikirentzat, hau Kattalinentzat, hau Igelarentzat, hau niretzat, eta hau Inurriarentzat. Ez, Inurriarentzat ez. (Atzera botatzen du, eta ia-ia Azeria jotzen du.)

AZERIA.- Txiripaz ez nau jo. (Jenio biziz.) Gero harrapatuko dut nik! Ikusiko du untxi horrek!

(Txikik edalontziak ipintzen jarraitzen du.)

TXIKI.- Hau Beltxikirentzat, hau Kattalinentzat, hau Igelarentzat, hau niretzat, eta hau Inurriarentzat ... Ez, Inurriarentzat ez, (Atzera botatzen du, eta berriro ia-ia Azeria jotzen.)

AZERIA.- Berriro? (Jenio biziz.) Harrapatu egingo dut, harrapatu! Eta gero jan egingo dut! Ikusiko du untxi horrek!

TXIKI.- Orain, masustak banatuko ditut. Baina, zenbat ipiniko ditut plater bakoitzean?

Nola kalkulatuko dut? Batzuk botako ditut; gutxi gorabehera kopuru bera geratuko da.

AZERIA.- Ez daki zenbatzen, ha! Ez daki egiten! Tira, besteak etorri baino lehen, harrapatu egingo dut!

(Txiki dagoen tokira joaten da, erpeetan ontziak daramatzala. Atseginez esaten dio:)

AZERIA.- Kaixo, Txiki!

TXIKI.- (Mesfidantzaz eta beldurra ezkutatu nahian.) Kaixo, Azeri!

AZERIA.- (Ontziak erakutsiz.) Begira zer aurkitu dudan! Ez dira zureak izango, ez da?

TXIKI.- Bai, baina ez du axolarik. Ez ditut behar. Agur!

AZERIA.- Nola ezetz! Seguru lagunena bat ontzirik gabe geratuko dela. Zer ari zara prestatzen?

TXIKI.- Ezer ez! Ni banoa!

AZERIA.- Tira, tira, ez izan gezurtia. Jai bat prestatzen ari zara, eta zure adiskideak etorriko dira. Bestela, zertarako dira plater hauek guztiak?

TXIKI.- Ezertarako ez. Agur!

(Txiki korrika hasten da, eta Azeria atzetik.)

AZERIA.- Etorri, etorri, ez dizut ezer egingo!

00:32

TXIKI.- Kattalin, lagundu! Ama, lagundu! Azeriak jan egingo nau!

(Azeriak harrapatu egiten du, eta zakuan gordetzen du; gero, ezkutatu egiten da. Txikiren oihuak ahul entzuten dira.)

AZERIA.- Orain, besteak etorri arte, hemen geratuko naiz ezkutaturik. Gaur bai egingo dudala jatea. Eta nolakoa! (Zakuan atximurka eginez; aldi berean, Txikiren aieneak eta oihuak nabaritzen dira.) Gizen-gizena dago gure Txiki, ha, ha!

(Besteak heldu eta...)

KATTALIN.- Txiki, hemen gara!

(Haren bila dabilta.)

IGELA.- Ez da hemen.

1. INURRIA.- Benetan haserretu da, eta joan egin da.

KATTALIN.- Nola egingo dugu jaia Txiki gabe?

(Inurriari.)

KATTALIN.- Zurekin haserretu da. Joan zaitez haren bila!

(Azeria begira dago bere ezkutalekutik.)

AZERIA.- Hori, Inurria joan daiteke, ez dut jango eta!

(Platerak zenbatzen.)

AZERIA.- Orduan, plater bana ipini badute, zenbat falta dira etortzeko?

(Azeriaren buruan agertuko denaren grafikoa: plater bakoitzaren ondoan pertsonaiaren irudia. Gero, Txikik harrapatu duena marra batez ezabatzen da. Grafikoeekin batera, Azeriaren ahotsa offean.)

AZERIA.- (Offean.) Plater bana ipini dute: Kattalinentzat, Txikirentzat, Beltxikirentzat, Igelarentzat eta Inurriarentzat. Ongi da! Beltxiki etortzean, denak izango dira.

1. INURRIA.- (Bidetik doa. Zakuaren ondoan igarotzean, Txikiren ahotsa nabaritzen du, eta...)

INURRIA.- Ene! Hemen zara, Txiki? Zer gertatu zaizu?

00:34

TXIKI.- Azeriak harrapatu nauela. Lagundu, lagundu, arren! Esaiozu nire amari etortzeko! Lagundu!

(Inurria korrika, bidean Beltxikirekin topo egin, eta...)

INURRIA.- Beltxiki, lagundu! Txiki zaku batean dago, Azeriak harrapatu du eta!

BELTXIKI.- Non dago?

INURRIA.- Zatoz nirekin, nik esango dizut!

(Biak korrika.)

(Azeria Kattalinengana hurbiltzen da, eta...)

(Igela eta Kattalin janaria ontzietan banatzen hasten dira. Azeriak begiratu egiten die, baina ez dira konturatzen.)

KATTALIN.- Plater bakoitzean kopuru bera ipini behar da. Txikik ez du ondo banatu; ondo ipiniko dugu.

IGELA.- Nik ez dakit nola, asko daude eta. Ez dakit hainbeste zenbatzen.

KATTALIN.- Ipin ezazu bat plater bakoitzean.

IGELA.- Masustak soberan geratuko dira!

KATTALIN.- Soberan daudenekin berdin egin behar da! Horrela, denak banatuko dituzu, eta denoi kopuru bera emango diguzu.

IGELA.- (Mirespenez.) Zenbat dakizun!

KATTALIN.- Agur.

AZERIA.- Kaixo, Kattalin!

KATTALIN.- (Ustekabean harrapatua, ikaratu egiten da.) Ui! Azeria! Ene! Alde hemendik!

AZERIA.- (Zurikeriaz.) Lasai, lasai, Kattalin. Ez nator gaiztakeriak egitera. Zertan zabilta?

KATTALIN.- Zuri bost axola! Alde hemendik! (Kattalin eta Igela urruntzen saiatzen dira.)

AZERIA.- Itxura ona dute masusta hauek. Dasta ditzaket? Zer duzue, askaria?

KATTALIN.- Bai, baina alde hemendik! Zu ez zara gure adiskidea.

AZERIA.- (Atsekabetuaren plantak eginez.) Ez esan horrelakorik, Kattalin! Hemendik aurrera, zuen adiskidea izango naiz. Eman bostekoa!

(Beltxiki eta Inurria Txiki dagoen tokira heltzen dira; zakua apurto, handik irten, eta korrika Kattalin dagoen tokira joaten dira, zakua daramatela.)

00:36

BELTXIKI, TXIKI eta INURRIA.- Goazen Kattalinengana, azkar!

KATTALIN.- Ez izan gezurtia! Zuk jan egin nahi nauzu! Ondo baino hobeto dakit!

AZERIA.- Ezetz, bada!

(Une honetan, zaku batek estali egiten du Azeria, eta oihuka hasten da.)

AZERIA.- E! Zer da hau? O! Ai! Askatu! Ez! Ez!

(Txikiren, Kattalinen eta denen artean lotu ondoren, haren inguruan geratzen dira.)

TXIKI.- Hori ezustekoa, e?

BELTXIKI.- Zuk gu harrapatu beharrean, guk harrapatu zaitugu!

KATTALIN.- Zer egingo dugu?

AZERIA.- (Offean.) Askatu, arren! Ez dut berriro egingo!

BELTXIKI.- Egia da hori?

AZERIA.- (Offean.) Bai, zin egiten dut. Zintzoa izango naiz, ez zaituztet harrapatuko!

IGELA.- Baldintza horrekin askatuko zaitugu: ezingo dituzu gure adiskideak harrapatu.

AZERIA.- (Offean.) Ados, zin degizuet!

(Askatu, eta denak Azeriari begira.)

BELTXIKI.- Eta gogora ezazu: zintzoa izango zara gurekin!

AZERIA.- (Amorru biziz.) Grrr! Hau lotsa!

BELTXIKI.- Tira, orain jolastera!

(Besteak elkarri begira eta...)

TXIKI.- Ez zara gauza batez konturatu, Beltxiki!

KATTALIN.- Egia da! Itxi begiak, Beltxiki.

(Beltxikik begiak ixten ditu; denen artean Zuhaizpera eramaten dute, eta han begiak zabaltzen ditu.)

DENAK.- Sorpresa! Zure urtebetetzeko eguna da. Zorionak!

BELTXIKI.- Egia da! Eskerrik asko, adiskideok!

IGELA.- Eta orain, jatera!

(Denak jaten eta abesten.)

TXIKI.- (Inurriari.) Ez esan gaizki abesten dudala; bestela, haserretu egingo naiz.

INURRIA.- Ondo abestu; bestela, haserretu egingo naiz.

(Jaten ari diren bitartean, abestiaren doinua entzuten da, eta kapitulua amaitu egiten da.)

BIBLIOGRAFIA

RESURRECCION MARIA DE AZKUE: Euskalerraren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco. EUSKALTZAINDIA & ESPASA CALPE

VILA, I.: "Adquisición y desarrollo del lenguaje" Narcea argitaletxea.

HEMSY DE GAINZA, V.: "La iniciación musical del niño" Ricordi Americana argitaletxea.

BEAVERD, B.: "Antes del cálculo" Kapelusz argitaletxea.

LAPIERRE, A. Y AUCOUTURIER, B.: "Asociaciones de contrastes estructuras y ritmos"

EGILEAK:

PRODUKTOREA

Luisa Calvo

GIDOIA

Luisa Calvo

GIDOI TEKNIKOA

David Brea

SOINU-BANDA

Koldo Uriarte

ARTEZKO ZUZENDARIA

Ana Lidia Compañón

ARGAZKI-ZUZENDARIA

Ana Lidia Compañón

ZUZENDARIA

David Brea

EXEKUZIOKO LANGINTZA

Goiaz Digital Produkzioak

Eloy Val

EUSKARAKO

ARDURADUNA

Joan Ignazio Bereziartua

JARRAIPENA

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

TXOTXONGILOEN

EGILEAK

Jabier Mayor

Jabier Atxa

EDIZIOA

David Brea

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

INFOGRAFIA ETA TRATAMENDU DIGITALA

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

SOINUA

Goiaz Digital Produkzioak

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

SOINU-EDIZIOA

David Brea

Maitane Cancho

Feli Rodríguez

KAMERALARIAK

David Brea

Feli Rodríguez

TXOTXONGILOEN

BIZI-EMAILEAK

Zigor Bilbao

Aitor Ormaechea

Ozkar Galán

AHOTSAK

Iker Galarza

Ane Garmendia

Aintzane Irazusta

Rakel Marin

Laura Murcia

Xabier Riezu

Asier Sota

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAREN LAGUNTZAZ EGINA.
LEGE GORDAILUA: VI-116/ 99

EIMA 98

L.C. PRODUKTOREA